

INDIA

Emakume gazteen erabakitasunak kalea Modi lehen ministroaren aurka jarri du

Sarah Syed Mumbai hiriko erredaktoreak France-Press agentziari esan zion Narendra Modi Indiako lehen ministroaren gehiengo hinduaren aldeko politikak aspalditik zeukala kezkatuta, baina indargabe sentitzen zela, egoera horri aurre egiteko ahalmenik ez zuela. Orain arte. Hogeita zazpi urteko emakume honentzat, herritartasunari buruzko lege erreformak gauza sakonen bat aldatu zuen bere barruan eta kalera irtetea erabaki zuen. Ikasleek egindako manifestazioei eman zieten egu-

 **POLITIKA** / joseangel.oria@gaur8.info

Narendra Modi lehen ministroak abian jarri nahi dituen ekimenek sekulako haserrea eragin dute ia 1.400 milioi biztanlera iristen den Indian. Emakumeak –kasta, klase eta etnia ezberdinetakoak– izaten dira mobilizazio horien protagonista nagusiak. Kalera protestara inoiz irten ez diren herritar zaharrak ere oraingo honetan kalean dira.

rraren irudiek ere lagundu egin ziotela onartzen du. Berak bezala, herrialde erraldoiko beste emakume askok ere protestaren bidea hartu dute. «Lehen ere bagenekien gauzak ez zeudela behar bezala,

ez zeudela ondo, baina gutako askorentzat politika depri-menteegia zen –adierazi du mutil katoliko batekin ezkon-
dutako neska musulmanak–. Orain, aldiz, ezer esan gabe jarraitzea, protestaldietan es-

Emakumezko manifestari musulmanek hatza jaso eta Modiren aurkako mezuak oihukatzen dituzte Bangalore hirian.
Manjunath KIRAN | AFP

ku ez hartzea, onartezina iruditzen zait, kriminala neurri batean».

New Delhi hiriburuan bezala, Kalkutan eta gainerako hirietan, Indiako agintarientzat oso ezeroso izaten ari diren manifestazioak egiten ari dira azken asteotan. Herritartasunari buruzko legea musulmanen aurkakotzat dute askok; eta beste gutxiengoen aurkakotzat, beste begirale batzuek. Edonola ere, makina bat analisitan nabarmentzen da emakumeak direla protestaldi askotako buruan; atzean edo ezkutatuta egotetik aurrean eta protagonista izatera pasatu direla.



New Delhi hiriburuan bezala, Kalkutan eta beste hiri askotan, Indiako agintarientzat oso ezeroso izaten ari diren manifestazioak egiten ari dira azken asteotan

Makina bat analisitan nabarmentzen da emakumeak daudela protestaldi askoren buruan; atzean edo ezkutatuta egotetik aurrean eta protagonista izatera pasatu direla

Iazko abenduko manifesta-
zioetan ehunka mila lagun el-
kartu ziren kalean, protesta
egitera, baina ekimen jende-
tsu haiek bestelako mobiliza-
zioei egin diete lekua geroztik.
Orain hamabost egun, esatera-
ko, indiar herritar askok ikusi
zituzten autobide bat okupa-
tuta zuten 200en bat emaku-
meak. Gau eta egunez han
egoten ziren, Shaheen Bagh

eremuan, Indiako beste leku
batzuetan ere tankerako pro-
testaldiak egiten has daitezen
proposatuz. Bihar, Uttar Pra-

desh, Kerala, Madhya Pradesh
eta Mendebaldeko Bengala es-
tatuetan eserialdiak egin di-
tuzte, Indiako banderak eta le-

ge horren aurkako mezuak zi-
tuzten pankartak hartuta.

Shaheen Bagh-eko ekintzai-
leek inspiratuta, Asmat Zamil
eta beste 150 emakumek Kal-
kutako parkea okupatzea era-
baki zuten. Beraien helburua
Modiren legea salatzea zen:
Indiako herritartasuna eman-
go zaie Afganistan, Pakistan
eta Bangladesheko errefuxia-
tuei, musulmanak ez badira.

«Hinduak, musulmanak, sik-
hak, emakumeak, zaharrak,
umeak... Mundu guztia dago
hemen. Gure ahotsa bazter
guztietan entzuten da», adie-
razi zion Zamilak AFPko kaze-
tariari.

LEHENENGO EGUNAK

Legeak, berez, ez ditu kalte-
tzen Indiako musulmanak,
baina herrialdeko populazioa-

SANGBIDA LAHIRI: «POLITIKAK EZ DIO
MASKULINOTASUNAREN ERRETORIKARI
GEHIAGO OBEDITUKO»

Sangbida Lahiri Kalkutako
Unibertsitateko irakaslearen ustez,
azken asteotako herri mobilizazioek
garbi uzten dute «etorkizuneko
politika oso bizkor aldatzen ari dela,
XXI. mendeko politikak ez diola
gehiago obedituko
maskulinotasunaren erretorikari;
genero gaiak kontuan hartuta eta
horietaz benetan arduratuta politika
egiteko garaia iritsia dela, tarteka
bortxatzaileak zigortzeko deialdiak
egitera mugatu gabe».

Berak «genero justizia» deitzen
duena ez da «limosna», «politikaren
beraren logikan eta ezaugarrietan
egindako esku hartze sistemikoa
baizik».

Kalkutako adituak bestelako
arrazoiak ere ikusi ditu emakumeen
jarrera horretan. Esaterako,
herritartasun legea okerragoa dela
emakumeentzat gizonentzat baino.
Assam estatuko atxilotze
eremuetatik iritsitako irudi eta
txostenek horrela frogatuko lukete.
«Eta emakumeak, ez
gutxiengoetakoak bakarrik, jatorri
guztietakoak baizik, eskubide zibilak
kenduko dizkieten beldur dira.
Oinarri sendoko beldurra da, botoa
emateko eskubideak berebiziko
garrantzia baitu kolonia izandako

herrialde batean», Lahiriren iritziz.
«Deskolonizazio prozesua»
amaituta omen dagoen herrialdean,
«emakumeen nortasun nazionala
Estatu kolonizatzailearen, eta
ondorengo Estatuaren, aurkako
borroken historiaren eraikuntzaren
fruitu da. Beraz, botoa emateko
eskubidea galtzeko mehatxuak, edo
herritartasuna galtzekoak, oso
sakon ukitu ditu. Unibertsitatean
dabiltzan emakumeentzat bizirik
irautea bezain garrantzitsuak dira,
badakite-eta zenbat kostatu zaien
azkenean ahotsa izatea. Horregatik
legearen aurka egiteko joera
garbiagoa dute».

Bestalde, dokumentazio ofizialik
gabe geratzea, paperik gabe alegia,
ez da arazo makala. Gaur egungo
Indian emakume askok, batzuk
erabat pobreak eta beste batzuk
aberatsagoak, ez dute dokumentazio
ofizialik. Jaiotza ugari inon
erregistratu gabe daude, eta
ezkontzen erregistroa bera ere ez da
fidatzeko modukoa. Beraz, pertsona
horiek ezin dute ezeren jabe izan eta
aita zaintzera behartuta daude, edo
senarra zaintzera ezkonduz gero.
Horrexegatik herritartasun lege
berria eta NRC erregistroa
mehatxutzat hartzen dute kasta,



Modi India suntsitzen ari da, manifestariaren kartelaren arabera. Manjunath KIRAN | AFP

klase eta pentsaera ezberdinetako
emakumeek.

Nekazaritza eremuetako
populazioaren alfabetatzeak eta
hirietako emakumeen
mugikortasunak egoera aldatu egin
dute: orain ezin zaizkie mehatxu
horiek ezkutatu. Etxe askotan neska
gazte horiek dira unibertsitatean
ikastera iritsi diren lehenengoak.
Ikasle horientzat askatasun falta,
beren ama eta amonengan ikusi

duten egoera bera, ez da onargarria.

Alfabetatzearen garrantzia
nabarmentzen du Sangbida Lahirik
emakumeek gaur egun gehiago esku
hartzen dutela esplikatzeko. Goi
mailako ikasketak egiten neska
gehiago egoteak esan nahi du
bidaiatzen ere gehiago ibiltzen
direla, ikasle-egoitzan edo beste
ikasleekin etxebizitzaren batean bizi
behar izaten dutela, eta modu
horretan independenteagoak dira.



ren %14 osatzen duen gutxien-
goa ez dago lasai. Bigarren
mailako herritar bihurtzeko
beste urrats bat dela uste dute.
Hori litzateke, begirale ba-
tzuen ustez, lehen egunetako
borroka gogorrak (27 hildako)
eragin zituen faktore nagusia.

Narendra Modi lehen minis-
troaren agintaldia bera ere
kinkan ipini dute mobilizazio-
ek. Parlamentuak lege berria
abenduari 11n onartu ba-
zuen ere, haserrearen mailak
ez du behera egiten.

«EZIN ISILIK GERATU»

Bihar izeneko estatuko Gaya
hirian (milioi erdi biztanle),
sekulako hotza egiten duen
arren, ehunka manifestarik as-
teak egin dituzte eremu bat
protestarako okupatuta. Tan-

kerako hamar eserialdi zenba-
tu zituzten nazioarteko agen-
tziek. «Ezin dugu etxean isilik
geratu, erlijio kontuengatik
Gobernuak geure herritartasu-
na kendu nahi digunean»,
esan zien AFPko kazetariei
Shagufta Aminek, Bihar esta-
tuko hiriburu Patnan eginda-
ko eserialdi batean esku hartu-

**Autobidea okupatuta zuten 200en bat
emakumek. Gau eta egunez egoten ziren,
Shaheen Baghen, beste lekuetan tankerako
protestaldiak egiten has zitezela proposatuz**

**«Hinduak, musulmanak, sikhak, emakumek,
zaharrak, umeak... Mundu guztia dago hemen.
Gure ahotsa bazter guztietan entzuten da»,
adierazi zuen Zmilek**

Hiriburuko Shaheen
Bagheko manifestari bat,
atxilotu baten askatasuna
eskatzen.
Sajjad HUSSAIN | AFP

tako emakumek. Asteburue-
tan milaka lagun elkartzera
iristen dira eta politikari eta
komunitateko buru batzuek
hartzen dute hitza. «Bandera
nazionala eskuan, geure Kons-
tituzioa salbatu arte borroka-
tuko gara. Ez dugu etsiko», dio
Nusrat Hassanek Patnan ber-
tan.

Bihar Estatuaren ondoan da-
go Uttar Pradesh, Modiren al-
dekoak nagusi diren lurraldea.
Bertako protestaldietan seku-
lako indarkeria izan zen eta
zauritu asko eraman behar
izan zituzten erietxeetara.
6.000 lagun atxilotu zituzten
protestaldietan parte hartzea-
gatik. Lehen ministroa bera bi-
zi den Varanasi hiriko parke
batean, Uttar Pradeshen ber-
tan, ehunka emakumek kan-

paldi bat antolatu zuten. Poli-
ziak «desobedientzia» lepora-
tu diela-eta, larri egon dira.
«Geure eserialdia mendia be-
zain tinkoa da. Ez gara hemen-
dik joango eskatzen duguna
lortu arte», esan zien kazeta-
riei Nasreen Zafar manifesta-
riak.

Oposizioko alderdiak aginte-
an dauden lekuetan, Mende-
baldeko Bengalan, esaterako,
bertako agintariekin babesa
ematen diete manifestazioei,
isilka bada ere.

Jakina, mobilizazioak ez dira
herritar guztien gustuko. Eten-
gabeko protesta giroak egune-
roko bizitzan arazoak sortzen
dituenez, batzuek gaizki begi-
ratzen diete manifestariei. Au-
tobidea okupatuta egoteak au-
to-ilarak eragiten dituela,

garraio publikoan denbora gehiago eman behar izaten dutela... «Manifestazioen alde gaude, baina errepide bat ixteak eta hori erabili behar dugun guztiak bahitu moduan hartzea lege ditzoso hori bezain gorrotagarria da», kexatu da Mihir Tripathi, New Delhi hiriburuko langilea, autopistan harrapatuta.

AGITAZIO POLITIKOA

Kalkutako Unibertsitateko irakasle Sangbida Lahiriaren iritziz, India lehen aldiz ikusten ari da herrialde osoan indartsu dagoen mugimendu iraunkor bat. The Wire hedabidean idatzi du nabarmentzekoa dela emakumeak izatea mugimendu horren bultzatzaile nagusiak. «Haserrearen negu honetan, ibilaldi bakoitzean, manifestazio bakoitzean, protestaldi bakoitzean, Jawaharlal Nehru Unibertsitatean hasi eta Jamiakoraino, Aligarhetik Jadavpureraino, lehen lerroan beti emakume gazteak ikusten ditugu. Herrialdeak independentzia lortu zuenetik ez du ezagutu horrelako agitazio politikorik, horrenbeste irauten duena eta buruan emakume gazteak direla, zalaparta bizi, ezin huts eginik eta erabakitasun osoz», dio Lahiri Asiako Ikerketa Departamentuko irakasleak.

Zoya Hasan New Delhiko Jawaharlal Nehru Unibertsitateko historialariak azpimarratu du egungo protestak «Modiren Gobernuak azken sei urteotan aurrean izan duen erronkarik handiena direla». Izan ere, manifestariak kalean egozteaz gain, Keralako eta Mendebaldeko Bengalako agintariek –oposizioa da nagusi horietan– aurreratu dute ez dutela Modik egin nahi duen herritarren erregistro nazio-

Oposizioko alderdiak agintean dauden lekuetan, Mendebaldeko Bengalan, esaterako, bertako agintariek babesa ematen diete manifestazioei, isilka bada ere

Kalkutako Unibertsitateko irakasle Sangbida Lahiriaren iritziz, India lehen aldiz ikusten ari da herrialde osoan indartsu dagoen mugimendu iraunkor bat

Goiko irudian, Kalkutako manifestari gazte bat bere mezua kopetan idatzita. Behekoan, Modiren «menua» umore pixka batekin azalduta.
D. SARKAR-Sajjad HUSSAIN | AFP



nala osatzeko inkestarik egingo. Herritar askok intsumisio jarrera hori ontzat hartzen dute.

Hasiera bateko protestaldiak herritartasunari buruzko legeak eragin bazituen ere, manifestari askok gaur egun esaten dute Gobernuak eraiki nahi duen «nazio hinduari» atea itxi nahi dizkiotela, eta India «sekularrari» eutsi, Hasan historialariak egin duen irakurtaren arabera. Berak, hala ere, ez du uste manifestarien bultzadak Narendra Modiren kanpaina geldiaraztea lortuko duenik. Ezta lehen ministroaren hauteskunde nagusitasuna ahulduko duenik ere. «Gobernuak protestaldiengatik agian urrats bat egin dezake atzera, baina bere betiko agendatik ez da gehiegi urrunduko», erantsi du.

